

KULTUR

2022

ekainak 25 /
irailak 11

#Recarga Cultura
#Kultura Birkargatu



Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



Horren guztiaren
parte zara zu ere;
sartu, ezagutu,
ikasi eta gozatu

#kulturnavarra2022

Udako 12 astetan zehar (ekainaren 23tik irailaren 11ra), Nafarroako hainbat leku bisitatzea proposatzen dizu **KULTUR** programak, kontzertuetan parte hartzeko eta bertako herriak eta ondare artistiko eta kulturala ezagutzeko aukera emango baitizu.

Aurten, zabaldu egin da lurraldea, eta hazi egin da **KULTUR**, herri gehiago sartu baitira. Bide sare ederra duzu aurrean, haiek gidatuko zaituzte eta, nahi baduzu, haietan galdu egin zaitetzke... **Baina, gelditu, begiratu, entzun, gozatu eta ikasi ere egingo duzu aurkitzen dituzun lekuetan, hori seguru. Jarrera kontua da; jakin-mina eta ate irekien bidez itzultzeko gogo nahastea.**

Gogoratu kulturak kargatu egiten zaituela eta zure aberastasun pertsonalean laguntzen duela, eta zure laguntza eta presentzia ere energia iturri direla sektorean lan egiten duten artistentzat eta pertsonentzat.

Eta ibilbide horretan, beste ibilbide garrantzitsu bat dugu: **Arte Berriko 10 urteko ibilbidea, kultur sorkuntzako fabrika, KULTURek 2022.** edizioan parte hartzera gonbidatu duena. Bertizko Jaurerriko Parke Naturaleko Lorategi Historiko-artistikoaren gunek liluragarrian, pintura, eskultura, musika, literatura, argazkigintza eta zinea zuzenean mintzo dira aberastasun botanikoarekin eta urmaelek, zubi txikiek, biribilguneek, begiratokiek, kaperak, Art Déco beirateek... eratzen duten paisaiarekin.

Lilura – Olerki magikoak Mikel Belascoain du komisario, eta uztailaren 1etik abuztuaren 31ra arte kultur sorkuntzako fabrika bat zer den eta nola funtzionatzen duen erakutsiko dizu. Agertoki berezi hori ikuspegi horretatik jorratu ahal izango duzu, eta era horretako espazioetan sortzen diren prozesuak ulertzera hurbildu. Ideia trukea, diziplinarteko lankidetzak eta kultura proposamenak sortzeko baliabideen batura bultzatzeko pentsatuak daude prozesu horiek.



Eta 2022an **50 urte beteko dira Iruñeko 1972ko** topaketak egin zirenetik. Gertaera berezi hark abangoardiako artista ugari, nazioartekoak eta askotarikoak, bildu zituen, izaera apurtzaileko obrekin, erradikaltasun sozial eta politikoz betetako testuinguruan.

Memorian geratu ziren aztarnen artean, aniztasunari, **sorkuntza prozesua ikusarazteari eta eremu publikoan egoteko borondateari buruzko ideiak jaso ditugu Kultur 2022an.**

Kupula puzgarriak Ziudadela aurrean.
Iruñeko Topaketak – 1972
Prada Poole artxiboa



KUL
TUR
2022

PROGRAMA

Jo&Swissknife



25 LR 20:00

Uriz (Artzibar)



Uritzeko Dorreko Landa
Hoteleko eta herriko
bisita gidatua

Bandada



26 IGA 20:00

San Adrián

Bastardix

AMESTUTAKO LURRALDEA



KUL
TUR
UZI

01 OR 22:30

Bidaurreta

02 LR 20:00

Pueyo / Puiu



Valdorbako Mendien KBE.
aren begiratokira eta Pueyoko
elizara bisita gidatua

Beietz



Matthieu Saglio

EL CAMINO DE
LOS VIENTOS



03 IGA 19:00

Aoiz / Agoitz

Lilura Poemas mágicos

ERAKUSKETA



FÁBRICA
ARTE
NUEVO

Bertizeko Natura Parkearen
Lorategi Historiko-Artistikoa
Uztailaren 1etik abuztuaren 31ra

Zaruk

AGUA



KUL
TUR
UZI

14 OG 20:00

Viana

15 OR 22:00

Puente la Reina /
Gares

Liher



Rojillos Blues Band



16 LR 22:30

Buñuel



Santa Ana elizara
bisita librea

Danserie Ensemble



16 LR 18:45

Orreaga /
Roncesvalles



Orreagako Errege Kolegiata
bisitatzea pista-joko
baten bidez

Lilura Poemas mágicos

ERAKUSKETA



FÁBRICA
ARTE
NUEVO

Bertizeko Natura Parkearen
Lorategi Historiko-Artistikoa
Uztailaren 1etik abuztuaren 31ra

Adriana Olmedo & The Disappointments

ELLAS



KUL
TUR
UZI

21 OG 22:00

Ribaforada

Martzillako Dantzariak eta Faltzesko Makaia Dantza Taldea



22 OR 20:30

Lodosa

Sinfonietta de Pamplona



23 LR 19:00

Ochagavía /
Otsagabia



Ochagavía / Otsagabia-ra
bisita gidatua

Lilura Poemas mágicos

ERAKUSKETA



FÁBRICA
ARTE
NUEVO

Bertizeko Natura Parkearen
Lorategi Historiko-Artistikoa
Uztailaren 1etik abuztuaren 31ra



Ezpalak

28 OG 21:00

Estella-Lizarra

**KUL
TUR
UZI**



Hutsun + JEL Trío

29 OR 19:00

Bera



Kimua

GENEROA

29 OR 20:00

Elizondo



The Trikiteens

31 IGA 19:00

Donamaria



Lezealde, Lur barruko
altxorra espeleo jarduera



Kokoshca

31 IGA 21:00

Los Arcos



Escape way



Santa María elizara bisita



Lilura

Poemas mágicos

ERAKUSKETA

**FÁBRICA
ARTE
NUEVO**

Bertizeko Natura Parkearen
Lorategi Historiko-Artistikoa
Uztailaren 1etik abuztuaren 31ra



Suakai

KUL
TUR
ABU

04 OG 19:00

Lizaso-Orgi



Pablo und Destruktion

04 OG 20:00

Tafalla



Gabezin

05 OR 20:00

Garralda



Euskal Herriko Txistulari Elkarte

IBAIK

05 OR 20:30

Isaba / Izaba



Lilura Poemas mágicos

ERAKUSKETA

FÁBRICA
ARTE
NUEVO

Bertizeko Natura Parkearen
Lorategi Historiko-Artistikoa
Uztailaren 1etik abuztuaren 31ra

ERAKUSKETA BISITA GIDATUA

04 OG 17:30



Divertimento Folk

11 OG 22:00

Corella



Ibil Bedi BELTXARGA BELTZA

11 OG 19:00

Roncal / Erronkari



Paloteado de San Juan Bautista de Tudela

12 OR 20:00

Lekunberri



Pamplona Jazz Quartet

HOMENAJE A PEDRO ITURRALDE

13 OR 21:00

Fitero



Ongizate zirkuitua + Libre
sarbidea kanpoko igerileku
hidrotermaletara
(bazkaltzeko aukera ere)



Lilura Poemas mágicos ERAKUSKETA

FÁBRICA
ARTE
NUEVO

Bertizeko Natura Parkearen
Lorategi Historiko-Artistikoa
Uztailaren 1etik abuztuaren 31ra

Tributo Aretha Franklin



19 OR 23:00

Sangüesa / Zangoza

Iosu Larumbe



20 LR 19:45

Leireko Monasterioa



Erresumako Zutabeak
bisita gidatua.
Bezpera-bisita
gregorianoaren ondoren,
Kultur Kontzertuaren
aurretik

Lilura Poemas mágicos

ERAKUSKETA



FÁBRICA
ARTE
NUEVO

Bertizeko Natura Parkearen
Lorategi Historiko-Artistikoa
Uztailaren 1etik abuztuaren 31ra



Move Quartet

ARTETA, RUIZ DE GORDEJUELA,
BARRUETA, CALLÉN

26 LR 21:00

Arguedas



Pilgrim's

27 LR 19:30

Mendaza



Acedo. *La ficha 145 de
Núremberg* nobelaren
ibilbide literarioa,
Vasco Navarro trenbidearen
bide berdetik



Monte del Oso

27 LR 21:00

Mendigorria



Bisita eta dastaketa La Casa
de Lúculo Upeltegietan



Bertizeko Natura Parkearen
Lorategi Historiko-Artistikoa

Uztailaren 1etik
abuztuaren 31ra

ERAKUSKETA BISITA GIDATUA



Lilura Poemas mágicos

ERAKUSKETA

25 OG 17:30

Holly Mirandaren emanaldia



Iparfolk

**KUL
TUR
IRA**

02 OR 20:00

Artaxoa



**The Fatty
Farmers**

02 OR 20:00

Tutera



Skabidean

03 LR 23:30

Leitza



Peru Harri, harriaren
museora bisita gidatua



Melenas

03 LR 17:00

Zugarramurdi

Leizean sartzeko prezioa:

5,50 € (helduek) / 3,50 € (12 urtetik beherakoek)



Zugarramurdiko museo
eta lezeetara bisita



Timbakada

04 IGA 20:00

Ujué / Uxue



**Jarabe
de Pau**

**KUL
TUR
IRA**

09 OR 20:00

Altsasu / Alsasua



Kuttune

09 OR 20:30

Etxarri Aranatz



**Willson &
Willsonetis**

10 LR 20:00

Abárzuza / Abartzuza



Patxaran Azanzako
artisau fabrikara bisita
gidatua patxaran barietate
dastaketarekin



Track Dogs

11 IGA 19:00

Martzilla

KUL
TUR
2022

EKA



25 EKA LR Uriz (Artzibar)

20:00/FRONTOIA

KUL
TUR
2022

Beste talde asko bezala, **Jo&Swissknife** taldeak eszenatokietatik jaitsi egin behar izan zuen 2020ko martxoan. Taldeak bere sorkuntza prozesuarekin jarraitu zuen, ordea, bide telematikotik.

The Band is back izan zen fruitu horietako bat. Kantu horretan Ahikar Azcona elkartu zitzaien harmonika jotzen, *La Casa de Papel* sailean egin zuen Pamplona pertsonaiarengatik eza-gunagoa edo Ahikarnet gida sareetan. Taldea eta Ahikar sare sozialen bidez jarri ziren harremanetan, eta erronka bota zioten elkarri Taj Mahal-en *Lovin' In My Baby's Arms* bezalako bertsio batzuetarako. Kimika ona nabaria izan zen eta *The Band is Back* aurrerapen bat besterik ez da. Taldeak 2022 honetarako prestatu

zuen ikus-entzunezko saga batetik abiatzen da, eta mahai gainean jartzen du bere musika ulertzeko modua eta garai berriak aukera gisa nola bideratu. Berpizteko aukera bat, baina kritika alde batera utzi gabe; izan ere, pandemiaren ondorengo egoerak oso ukitua utzi du musika sektorea, musikarientzat txarretik okerragora joan baita. Berriro zutik jartzeko, kantatzeko, dantzatzeko eta jendearekin elkartzeko gonbita ere bada saga hori.

Estiloak aurreko lanen ildotik jarraitzen du: musika amerikarra, *bluegrass*, *swing* edo *country-rock* ukituekin. Baina kantu berriak, kontzeptu berriak, formatu berriak eta zuzenekoak ezinbestekoak dira, adierazteko eta ospatzeko modu gisa.



26 EKA IGA San Adrián

20:00/UDALETXEKO LORATEGIAK

KUL
TUR
2022

Marian Ruiz, **Bandada**, artista, abeslari, poeta eta *songwriterra* Iruñean bizi da, eta musika sentitzeko eta bizitzeko modu bakar eta pertsonala du.

Soinu eklektiko batek definitzen du **Bandada**: rocka, popa, rumba, *reggaea*, *swinga*, tangoa


eta beste hainbat estiloren fusioa eta aniztasuna. Beraz, harrigarria eta bestelakoa da musika mailan. Letra adierazkorrak, poetikoak eta sendoak dituzte bere abestiek, hainbat gai eta kolore biltzen ditu haietan, eta abestiak jotzean, sentimenduak, pasioa eta arima jartzen ditu.

Bandada



UZI

KUL
TUR
2022



01 UZT OR Bidaurreta

22:30/SOZIETATE PLAZA

KUL
TUR
2022

Taldearen lehen zantzuak 2015ean izan ziren. Irlandako musika du ezaugarri taldearen soinuak, zelta kutsuko melodiekin, baina hardak, punkak, euskal rockak eta estatukoak hartzen dute bere musika ondarearen beste erdia, ala alderantziz? Ander Nagore buru dela, hark beste zortzi atomo gehitzen dizkio taldeari, nafar petoaren izaera eta jarduera sasi-basatia eratzeko, Bastardix taldea, alegia. Atomoak trinkoak dira, eta unitatearen eztanda primerakoa da, baita izena ere, bastardo, edo Iparraldean esaten den bezala, bastarta. Lehen diskoa 2019an argitaratu zuten, “Herederos de nadie” (Gor). Beti etortzen dira garaiak, eta hauetan ere ez dute lokartzeko astirik hartu, baina beren lurraldearekin eta musikarekin amets egin dute argi eta garbi.

Bastardixen bigarren diskoak, *Amestutako lurraldea* izenekoak, etengabe erabili ditu bere konstante musikalak, horiek baitira taldearen bizi konstante aldaezinak. Musika alaia da, eta ametsetako lur libre horretan oinak jartzeko eta alaitasunean bizitzeko bizi itxaropen garbia dagoela uste dute, baina sistemaren eta, oro

har, gizartearen gabeziak eta hutsuneak kritikatzen dituzte etengabe. **Bastardixek** rocka (*hard rocka*) eta folk irlandarra ditu oinarri, ñabardura zelta berezi horrekin, entzuleari proposamen askatzailea eta jostagarria helarazteko. Martxa, bai, eta konpromisoa ere bai. **Bastardixen** musikak indarra du dibertsioa eta letren zati soziala konbinatzeko; letra horiek nahiko zuzenak dira, burlaize eta ironia handiarekin. Abesti soilak dira, entzuteko errazak, konplexutasun txikikoak eta erakargarriak aldi berean. Kementsuak dira kontzertuetan, jendea beren abestiekin txundituta uzteko. Josu Erviti grabazio teknikariak nahiko goian utzi du diskoaren eta taldearen maila. Abestiek soinu trinkoa dute, eta folk ekaitzekin nahasi dute askotariko rocka. Emaitzak efektu itsaskorra du lehen aldiz entzuten denetik, eta horixe da **Bastardixen** alderdirik interesgarrienetako bat, hau da, rock aukera (hard rock, metal), folk irlandarra eta zelta kutsua eskaintzen ditu Bastardixek, eta alaitasunera bultzatzen gaitu, etengabeko giroa sortzen da jaian, nahiz eta zenbait baladarekin gradu batzuk erlaxatu. Salbuespenak, ordea, ez du baretuko **Bastardixen** soinu zurrumbiloa.

Bastardix

AMESTUTAKO LURRALDEA



02 UZT LR Pueyo / Puio

20:00/UDAL IGERILEKUAK

KUL
TUR
IRA

Folk-zelta doinuak, rock, punk edo reggae erritmoekin nahasten ditu **Beietz!** taldeak. *Zel-tik-parranda* izena jarri diote estilo horri. Folk-rock indartsua, errebeldea, errebindikatzalea eta jatorra.

Arbizuko talde honek bigarren diskoa aurkeztu du, *Askatu Aingura*, Peio Skalarik Arbizuko Studio Baten grabatua. Zortzi abesti ditu diskoak, eta *Batera* da lehenbiziko abestia; errebindikatzalea da, azkarra, alaia, eta lau haizeetara oihukatzen digu ozeanoko olatuen indarraren parekoa dela marea morearen indarra.

Diskoari izena ematen dion kantak, *Askatu Aingura*, itsas sakonetik aingura askatu eta lema hartzera gonbidatzen gaitu. Bide beretik, lotzen gaituzten kate horiek hausteko eta hegan egiteko koloretako mundu fantastikoetan murgiltzeko deia da *Libre!* abestia.

Laugarren abestiarekin batera, lasaitasun gazi-gozoa dator; japoniar gereziondoaren hosto arrosakarak erortzean, maitaleek konexioa galtzen dute leihoaren hegian, *Lehio hegian*. Eta berreskuratu egiten dute *Kale Gorrian* abestian. Azken abesti horrek *feeling* izugarria du, larunbat gauetan tabernetan sortzen den hori.

Bien bitartean, diskoak bila jarraitzen du *Zure bila* kantuan. Batzuetan noraezean galduta, zirkuluetan korrika... baina itxaropena galdu gabe. Gu abestien bila, eta haiek bero egoteko aterpe bila, kanpoan hotz handia egiten baitu. *Hotz beltza*, gu etxeko egongelan goxo gauden bitartean.

Eta amaitzeko, *Udazkena* abestiak, denborak aurrera egin arren, zapi urdina jantzi eta kalera parrandan ateratzera gonbidatzen gaitu.



03 UZT IGA Aoiz / Agoitz

19:00/NAFARROA BEHEREA PLAZA

KUL
TUR
2022


NESein (Ahlam albuma - ACT 2018) eta 30 herrialdetan egindako ehunka kontzertuekin (Jerez Texas, Cello Solo, Diouke, Résonance) arrakasta izan ondoren, **Matthieu Saglio** biolontxelo jole eta konpositorea bere barnera begira jarri da bere karrera osoaren balantzea egiteko. El camino de los vientos. Bide bakarra eta berezia, nahiz eta haizeek eragina izan, askotarikoak, aldakorak, harrigarriak. Artistaren inspirazioa, ibilbidean topatzen dituen aurkikuntzen eta nahasketen eraginpean. Bere bizitza musikala, azken batean, baina oraingo honetan nobleziarik handieneko talde batek lagunduta. Konposizio berri horietan, luxuzko gonbidatuz inguratu da Matthieu, Europako jazzaren erreferentziak, aspaldiko lagunak... eta bere hiru seme-alabak tartean.

Opus berri honetan honako hauek hartzen dute parte: Nguyễn Lê (gitarra), Nils Petter Molvaer (tronpeta), Carles Benavent (baxua), Vincent

Peirani (akordeoia), Steve Shehan (perkusioa, eta abar), Bijan Chemirani (perkusioa), Léo Ullmann (biolina), Camille Saglio (ahotsa), Ricardo Esteve (gitarra flamenkoa), Isabel Julve (ahotsa), Abdoulaye N'Diaye (ahotsa) & Teo, Marco, Gael Saglio Pérez (koruak). Lan honetako kolaboratzaileak ez dira gonbidatu hutsak izan. Guztiek izan duten beren askatasun eremua, eta inspirazioa eta zigilu pertsonal imitaezina eskaini dituzte. Eraitza askotariko diskoa da, biolontxelo ardatz nagusi duela, denboraz kanpoko bidaia gisa egiten dena. Bakarkako konposizioak eta jazz-kutsu nabarmena duten inprobisazioak daude, beste batzuk klasikoagoak, soinu bandaren zaporekoak. Afrikaren erritmoak, tonu arabiarak, palo flamenkoak... ere badaude. Hogei urteko abenturazko eta musika eta giza topaketako bide baten logika sailkaezina bezala, mundua, edertasuna eta pertsonen arteko ulermena ulertzeko modu pertsonala.

Matthieu Saglio

EL CAMINO DE LOS VIENTOS



14 UZT OG Viana

20:00/SAN PEDRO ELIZAREN HONDAKINAK

KUL
TUR
2022

Iris Azquinezarren biolontxelo eta Rainer Seifertzen gitarra elkartu zirenean sortu zen **Zaruk** musika bikotea, klasikoaren, modernoaren eta herrikoiaaren arteko bidegurutzean. Sortzaileen soinu iruditeria doinu zaharrek elkartuta, benetako soinu pertsonala sortu dute. «Isiltasunaren itsasoan bada Zaruk izeneko soinu lurralde bat».

Etengabe aldatzen ari den bitartean, inguratzen, osatzen eta batzen gaituen ura du hizpide proiektu honek. Putzu baten egarria baretzen

duen itsasoa da. Malkoa da, urez goiti bere iturriraino doana. Danubio bat duen tanta da; elur maluta bateko ur arreak. Naiadeen balts amniontikoa da, hirian euriaz mintzo dena. Elementu likidoarekin lotutako musiken bidez, kulturak eta istorioak elkartuko ditugu: Jean Sibeliusen piezekin hasi eta Murtziako lo kantekin edo Brasilgo kantekin buka. Maria Berasarteren ahotsaren laguntzarekin, **Zarukek** bidaia sentisorial batera gonbidatzen gaitu uretako kaleidoskopio zoragarri honen bidez.

KIDEAK

Iris Azquinezar: biolontxelo / **Rainer Seifert:** gitara / **María Berasarte:** ahotsa

Zaruk

AGUA



15 UZT OR Puente la Reina / Gares

22:00/JULIAN MENA PLAZA

KUL
TUR
2022

Liher proiektuak 2015ean hasi zuen bere ibilbidea. Lide Hernandok, orain taldeko abeslaria eta gitarra jolea denak, *Arrazoi gutxi, denbora asko* izeneko maketa bat atera zuen bakarka. Proiektuak hilabete gutxi behar izan zituen talde bihurtzeko; eta gaur egun Iñigo Etxarri (gitarra, koruak), Joshka Natke (baxua, koruak) eta Ander Berzosa (bateria) dira laukotea osatzen dutenak.

2016an argitaratu zuten beren lehen LPa, *Hauts*; 2018an *Tenpluak Erre*, zeinarekin taldeak stoner kutsuko rock astunago baterako bideari ekin zion.

Bide horretatik jarraituz, 2020an *Hemen Hementzen* izeneko disko-liburu tematikoa argitaratu zuten, eta 2021eko azaroan, berriaz, *Eta Hutsa Zen Helmuga* euren azken lana. Lau lan horietan zehar rockaren adar asko nahasi dituzte, eta taldeak gero eta estilo eta soinu pertsonalagoak garatu ditu, bere zuzeneko ahaltsetan bere alderdirik sendoena eskainiz.

Liher



16 UZT LR Buñuel

22:30/SAN JOSE DE CALASANZ PLAZA

KUL
TUR
2022

2010. urte hasieran sortu zen **Rojillos Blues Band** (RBB) taldea. Blues generoko gai klasikoak interpretatzen dituzte (Allman Brothers, Lynyrd Skynyrd, Blues Brothers, Bo Diddley, besteak beste), bai eta *country* edo *rockabilly*koak ere (Carl Perkins, Terry Fell, John Fogerty). Creedence Clearwater Revival taldearen omenezko errepertorioa ere egin zuten, talde horren abesti ezagunenekin. Bost kideek aldeztu aurretik badute esperientzia beste talde batzuetan.

2010ean, Burlatako Euskal Herria Peñaren Udazkena Blues jaialdian parte hartu zuen taldeak. Bertan, Bill Tomsen telonero gisa eta artista horri laguntzeko talde gisa aritu ziren, Marc Reismanekin batera, saio berean.

Besteak beste, Burlatako Blues Bar elkarteak Uranga parkean antolatutako Blues Jaialdian parte hartu zuen taldeak 2011n. Arrakasta handia izan zuen, eta behin betiko plazaratu zen Iruñeko panoraman mota horretako musika eskaintzaren barnean.

Ordutik, Nafarroako Udalek eta BBB elkarteak antolatutako beste ekitaldi batzuetan ere parte hartu du, baita Atarrabiako TOTEM diskotekak, Iruñeko ZENTRAL edo Burlatako Kultur Etxeak antolatutako kontzertuetan ere.

Taldeak aktiboki parte hartu du halaber SER kateak ekainean antolatutako Actúa Pamplona ekimenaren edizioetan azken 4 urteetan.

KIDEAK

Carlos Goñi: baxu jotzailea eta abots koruak / **Miguel Marzábal:** gitarra, harmonika eta ahots koruak **Alberto Alfaro:** gitarra, slide eta banjo bluegrass / **Santiago Ventura:** bateria / **Jaime Valdeolmillos:** ahots nagusia eta gitarra akustikoa

Rojillos Blues Band



16 UZT LR Orreaga / Roncesvalles

18:45/KOLEGIATA

KUL
TUR
2022

Pirinioak, milaka urteko eremua, Nafarroa bi isurialdeetara hedatzen den lekua. Biztanle guztiak batzen dituzten mendiak, kultura, hizkuntza, musika eta folklore ondare aberatsean agertzen den unitatea.

Erronkari, Zuberoa, Zaraitzu, Garazi, Aezkoa, Zize, Donapaleu, Erro, Esteribar, Baigorri,

Baztan, Lapurdi... bailara eta herri horietan guztietan jendea antzinatik lotu izan da hizkuntzarekin, kantuarekin eta dantzarekin.

Kaleko herri musika eta aretoko musika edo musika “kultua” eskutik helduta ibili ziren aurreko mendeetan, eta mailegu eta musika eragin ugari ezarri ziren, gaur egun arte Pirinioetako musikan ere mantendu direnak.

Pirinioetan, *txirula* eta *ttun-tuna* edo salterioa dira protagonista nagusiak, eta haiek gidatzen dituzte bertako jendearen dantza eta adiera-

zpen artistikoa, berez naturarekin hertsiki lotuta dagoen jendea eta dantza bezalako ohitura sozialak dituen.

Arranoak bortüetan lanean, **Danseriek** Nafarroa Behereko maitaleen kantuak eskaintzen ditu, lurrarekin lotura duten *Orhiko xoria* bezalako doinuak eta *jauzi* eta *mutil dantzak* bezalako dantzak, bere erritu zirkuluan harrapatzen gaituztenak. Hori guztia euskararen berotasunarekin eta edertasunarekin, entzuteko zoragarriak diren musika horiek besarkatzen baititu.

Danserie Iruñean (Nafarroa) jaio zen eta 1999an ekin zion bere ibilbideari. Taldeak XVIII mendea baino lehenagoko musika ikertzen eta interpretatzen du, irizpide historikoen arabera, idatzizko iturrietara eta musika tradizionalen irauten dutenetara joz, eta, era berean, garai hartako musika tresnen kopiak erabiliz.



Danserie Ensemble

ARRANOAK BORTÜETAN



21 UZT OG Ribaforada

22:00/ZALDUN TENPLARIOAK KALEA

KUL
TUR
2022

Emakumeek interpretatutako musikaren historiako kanta onenetako batzuk errepasatzen diren kontzertua da **Ellas**.

Soula eta bluesa bezalako estiloek, *rythmn&bluesa* eta *rock&rolla* tartean, publikoak oso ezagunak dituen abestiekin, dantzatzera, kantatzera eta inoiz modatik pasatzen ez diren doinuez gozatzera animatzen dute jendea. Publiko guztiarentzako kontzertua.

Aretha Franklin, Nina Simone, Nancy Sinatra, Gloria Gaynor, Adele, Dusty Springfield, Etta James, Janis Joplin, Amy Winehouse... Zertan dute

antza horik guztiek? Guztiek dute izen propioa, artista handiak dira, guztiak emakumeak, eszenatokia indarrez eta bizitasunez betez historiara pasa zirenak, emakume izateak gauzak bereziki erraztu ez zizkien garaietan. Emakume horiek beren ibilbide gorabeheratsuan bizi izan zituzten aipuak, gertaerak eta pasadizoak tartekatzen dira kontzertuan.

Ikuskizun bizia eta interesgarria da jendearentzat, eta beti musikaren historiaren eta pertsona askoren bizitzaren parte izango diren abestiak gogoratzen ditu.

Adriana Olmedo & The Disappointments

ELLAS



22 UZT OR Lodosa

20:30/PASEALEKUA (ESPAINIA PLAZA)

KUL
TUR
2022

Urtero, abuztuaren 24an, **Martzillako dantzak** egiten dira Pluko Andre Mariaren eta San Bartolomeren omenez. Bi kalejira egiten dira, agintariena eta prozesiokoa. Gainera, zaindareiei eskaintzak egiten zaizkie parrokian, haien egun handian (abuztuaren 5ean eta 24an, hurrenez hurren), eta makil dantza (paloteado), pikoa, arku dantza eta jota dantzatzen dira. Musika Jose Luis Fraile iruindarrak konposatu zuen, eta, dantzetarako, Baztango Mari Cruz Goñi eta Amadeo Arretxearen laguntza izan zuten. Jantziak Marecilla Emakume Elkarteak eginak dira, eta urre koloreko xehetasunak, eskapularioak, kaskabiloak, Andre Mariaren dominak eta espartinak dituzte, besteak beste; horrez gain, Andre Mariaren egunean albaka banatzen da. Pertsonaia ospetsu batek ere parte hartzen du zikloan, bazter nahasleak (zascandil), koloretako trajea eta maskara jantzita; zaku batean, dantza bakoitzean erabiliko diren tresnak daramatza: makilak eta kriskitinak. Koloretako zintak eta kaskabilo handiak dituen makila bat ere badu, dantzariak prozesioan eta dantzetan gidatzeko.

Makaia dantza taldea 1988an sortu zuten Faltzesen, gure lurraldeko folklorea biziberritzeko eta mantentzeko asmoz. Urte hauetan, taldea finkatu egin da, eta, gaur egun, bi sekzio ditu: txikiena eta gazteena.

1993an *Faltzesko Dantzak* estreinatu zituzten; bost pieza horien musika Bernardo de Zala y Galdeano faltzestar musikariaren liburuan dago jasota (liburua 1700. urtean argitaratu zen, Iruñean). Dantzetan, Faltzesen ohikoa den nekararitza tresna bat erabiltzen dute, igitaia (hoz/foz). Ondoren, inauterietako dantzak egin zituzten. Hala ere, Nafarroa osoko dantzak dauke taldearen errepertorioan: erriberako makil dantza, mendiko ingurutxoa, eta, nola ez, Nafarroako jotaren hainbat bertsio. Baina hori guztia ezinezkoa litzateke faltzestarren gogo bizirik eta laguntzarik gabe: *orainaren bidez etorkizuna markatzen dugula esan ohi da, eta, horregatik, espero dugu gaur egun lantzen ari garen folklorea hurrengo belaunaldiei iristea.*

Martzillako Dantzariak eta Faltzesko Makaia Dantza Taldea



23 UZT LR Ochagavía / Otsagabia

19:00/SAN JUAN EBANGELARIA ELIZA

KUL
TUR
2022

Iruñeko Sinfonietta 1991n sortu zen, Caroline Collier zuzendariaren eta musika instrumentala maite zuten Pablo Sarasate Kontserbatorio Profesionaleko ikasle ugariren interesaren fruitu. Handik hogeita hamar urtera, taldeak handitzen jarraitzen du, Iruñeko eta Nafarroako musikari *amateur*ak, ikasleak, irakasleak eta musika munduko profesionalak sartu baitira.

2014an, Nafarroako Gobernuak interes sozialeko ekimen izendatu zuen Iruñeko **Sinfonietta**, musika arteen atalaren barnean. MECNA zigilua lortu zuen horregatik.

Iruñeko Udalarekin elkarlanean aritu da antolatzen dituen musika zikloetan, baita Nafarroako udal ugarirekin ere.

Sinfonietta de Pamplona



28 UZT 06 Estella-Lizarra

21:00/LOS LLANOS KULTUR JAUREGIKO LORATEGIAK

KUL
TUR
2022

Ezpalak, Zestoako (Gipuzkoa) rock alternatiboko taldea, Voltaia, Los Moths eta Grises bezalako taldeetako kideek osatzen dute.

2020 urte aztoratua gaindituta, **Ezpalak** itzuli egingo da, soinu *irmoagoarekin* beren esanetan: *fuzz* gitarren, psikodelia eta *noise* kutsuen, *riff* indartsuen, *punk* kolpeen eta, zergatik ez, *h*alako *pop melankolia* baten artean, adierazi dute. 2019ko martxoan izen bereko albuma, eta 2020an, *Itzala*, *Tristura* eta *Hegan* edo hilik single berrienak argitaratu ondoren, *ekoizpen gaurkotuagoa* eta sintetizadore zorrotzagoak ditu hainbeste espero zen beren bigarren albumak, eta *horiek pintzelkada psikodelikoak eta*

lo-fi soinuak gehitzen dizkiote diskoari, Ezpalak taldeak aurreratu duenez.

Disko berriak erritmo rockero eta dantzagarriagoak dakartza, laurogeita hamargarren urteetako eragin nabarmenez bustia, Sonic Youth, Dinosaur Jr., Nirvana edo The Smashing Pumpkins-era eramaten gaituztenak. *Garagearen* eta *grungearen* arteko soinu horiek askoz ere nabariagoak eta garbiagoak ziren estreinaldiko LPan, **Ezpalak** izenekoan (2019), eta orain, izaera propioa duen soinu sorta batean barreiatzen dira eta beste talde berriago batzuei erreferentzia eginez, hala nola Ty Segall, Shame, Idles edo Fontaines D.C., besteak beste.

KIDEAK

Juanjo Berasain: ahotsa / **Eñaut Gaztañaga:** gitarra / **Unai Eizagirre:** baxua / **Ianardana Iglesias:** bateria



Ezpalak



29 UZT OR Bera

19:00/TOKI ONA PATIOA

KUL
TUR
2022

Sonoritate, estilo eta musika bide berriak aztertzeke jakin minetik sortu zen proiektu berritzaile eta etorkizun handiko hau. Kontzertu paregabea da emaitza, atsegina eta harrigarria, kalitatezko *jazz* errepertorioarekin, modu berrituan interpretatua, eta mitologia oroigarriekin.

Alde batetik, jazzak elkartutako ibilbideak dituzten hiru musikari, **Marcelo Escrich**, **Javier Lopez Jaso** eta **Juanma Urriza**. Eta bestetik, **Hutsun**, **Anai Gamba Uriz** eta **Mikel Urrutia**, txalapartari bizia, erritmoa eta doinua ematen. **Hutsun+JEL-Trio** osatzen dute denak elkartuta.

Hutsun + JEL-Trío



29 UZT OR Elizondo

20:00/FORUEN PLAZA

KUL
TUR
IRA

Dantzaren bidez, gorputzaren mugimenduek gidatuta, hauteman ahal izango ditugu hartzen ditugun edo ezartzen dizkiguten rolak. Beneran aske bagina, nola mugituko ginateke? Nola dantzatuko genuke? Eta zu ausartuko al zara dantzan lehen pausoa ematen? Loturak hausten? Egiaz libre izaten?

Kimua Dantza Kolektiboa taldeak genero ikuspegiaren inguruko lana proposatzen digu dantza ikuskizun baten bidez. Partaidetza bitartekotza original bezain berritzailearen bidez, **Kimuak** planteat-

zen digu loturarik edo katerik ba ote dugun ... biologiari, genetikari eta euskarari dagokienez generoaren ikuspuntutik begiratuta.

Kimua Dantza Kolektiboa taldeko sei dantzari eta **Ekaitz Goikoetxea** bertsolari eta idazlea arituko dira oholtza gainean. Euskal dantza tradizioaletatik abiatuta, ukitu klasiko eta garaikideak dituzten koreografiak interpretatuko dituzte. Hainbat musikak, zuzeneko errezitaldiek, *bertsoek*, *off* ahotsek, trantsizioek eta hainbat baliabide materialek osatuko dute ikuskizuna.

Kimua

GENEROA



31 UZT IGA Donamaria

19:00/FRONTOIA

KUL
TUR
2022

The Trikiteens plaza taldea da. Kalejirak, jotak eta porrusaldak, *jauziak*, baltsak, mexikarrak eta dantzatzeko beste pieza batzuk interpretatzen dituzte. Betikoak eta batzuk berriagoak.

Batzuetan herri kantak aldatu egiten dituzte nortasun propioa emateko. Eta herri musikaren

esentzia galdu gabe, erritmo azkar eta diberti-garriagoekin jotzen dituzte.

Beste batzuetan, talde modernoagoen bert-sioak interpretatzen dituzte, pop, rock, punk eta *ska* erritmoak bezain askotarikoak, betiere publikoaren elkarreragina bilatuz.

The Trikiteens



31 UZT IGA Los Arcos

21:00/DEL COSO PLAZA

KUL
TUR
2022

Kokoshca rock iberiarreko talderik harrigarri eta pertsonalenetako bat da. Izaera berezia du guztiz ustekabeko norabideak hartzeko gai den estilo jarrera eklektiko baten bidez. Bere estudioko seigarren albumaren izena **Kokoshca** da, besterik gabe, eta oso leial eusten dien laukotearen ezaugarriei, egiten duten planteamen-dua askotan berritzailea bada ere, baina, gainera, indartsuagoa eta berehalakoagoa da bere soinuak, publiko zabalagoa besarkatzeko prest.

Himno de España bezalako lanak, flamenko, funk, rap, *krautrock* eta *afrobeats* arteko talka, eta, Iñaki López gizonetzko liderrak dioen bezala, “mundu horiek elkartu eta zati handia-go eta sutsuago batean banatzeko asmoa, hau da, tradizio poetiko espainiarra eta beste bat pikaroagoa. Jatorria –adierazi du– Las Grecas, Bambino, Chunguitos... eta beste omentzeko *Primavera Sound*-en egin genuen kontzertuan, eta *El rock de los gitanos* izeneko dokumentaleko Pata Negraren zuzeneko batzuetan du neurri batean”.

El rayo abestian ere nabari da funk pultsioko neurrigabeko erritmoa: bere letran adierazten digute pandemiaren lehen urtean erregistratu zela, Javier Carrasco (Betacam) zegoela teklatuetan eta Sevillako La Mina estudioetan grabatu zela Raúl Pérezen koprodukzioarekin. Hain zuzen, esan daiteke album honetan bosgarren **Kokoshca** dela Betacam, moldaketak egin eta gitarrak, pianoak eta sintetizadoreak jotzen baititu.

Confusión bezalako gaiak synth-pop hutsak dira; Asia, berriz, -bandaren hit handienetako bat bihurtuko dena-, Iñaki Ochoa de Olza mendizale nafar zenduari egindako omenaldi biribila da, David Bowieren *Heroes* albuma gogorarazten duen epikarekin. Eta ez dugu ahaztu behar beste lankidetzak nagusi bat, Mujeres taldearena, *Te Sigo Esperando* abestian, bi taldeen unibertsoen arteko topaketa perfektua.

Iñaki López, Amaia Tirapu, Álex López eta Iñigo Andionek beren erritmika eta leloak finkatu dituzte **Kokoshcan**, eta zerbait zailagoa ere lortu dute: pop soinu handiagoa, inoiz baino eskuragarriago eta beti bezain desafiataile.



Kokoshca



KUL
TUR
2022

ABU



04 ABU OG Lizaso-Orgi

19:00/ORGİ BASOA

KUL
TUR
2022

Música en cada Rincón 2020. urtean sortu zen, musika eta ikus entzunezko kultura ezkutuko tokietara eta espazioetara eramateko. Hirugarren edizioan, herrialdeko udalerri txikienetan ibiliko da, eta Kanariar Uharteetan bukatuko du bira. Birarako aukeratu eta egokitutako ikuskizuna da *Luz, Música ¡Acción!*, oso ikuskizun

hurbila eta espresuki publiko guztiarentzat sortua. Jatorrizko soinu banden musikan oinarritua dago, eta kalitate tekniko eta musikal bikainetatik nabarmentzen da, herrialdeko musikaririk eta musikaririk garrantzitsuenekin lan egiten baitu.

KIDEAK

Claudia Osés: biolina eta mandolina / **Maddi Arana:** biolina / **Iván Carmona:** biolontxelo, flautak eta duduka / **Alejandro Martínez:** biolontxelo / **Igor Arostegui:** perkusioa / **Daniel Domínguez:** perkusioa eta bateria / **Ikuskizunaren zuzendaritza eta sorkuntza:** Iván Carmona y Claudia Osés, Suakai.

Suakai

LUCES, MÚSICA ¡ACCIÓN!



04 ABU OG Tafalla

20:00/KONDEAREN PARKEA

KUL
TUR
2022

Pablo Und Destruktionek 2011n ekin zion bakarkako ibilbideari, eta leku nabarmena hartu du Espainiako musika panoramako autore-rik interesgarrienetako gisa, etiketa orotatik kanpo. Trobadore postmodernoa da, eta sei album argitaratu ditu: Animal con Parachoques, Sangrín, Vigorexia emozionala, Predazioa, Futuro Valores eta Ultramonte. Letra biziak dituzte guztiek, ironikoak, poetikoak eta desafiataileak, aurrerapenaren ideia zalantzan jartzen dutenak, merkantilizazioa, ongizatearen gizarte faltsua salatzen dutenak, eta beste norabide bat bilatzen dute XX. mendeko inperio globalizataileak erori ondoren. Manikeotik, modernotasunekin, su artifizialetatik atera egiten dira. Eta hausnartu egiten dute.

Bosgarren lanarekin, Futuros valores (Humo, 2020), **Pablo Und Destruktione**k introspektzio lana egin zuen, munduko zarataren orrotik aldenduz eta lan sinbolikoagoa eta minimalistagoa emateko. Ultramonte disko berrian, munduan dago berriz ere mundukoa izan gabe, eta erromantizismoaz baliatzen da errebeldia ekintza gisa.

Hamabi kantuk osatzen dute abesti arin, ultramoderno, folk eta mitologikoaren bilduma hau. Lan sotil, metaforiko eta guztiz estetikoa, sakratuak gizarte garaikidean duen esanahia birpentsatzen duena. Ultramontek, batzuetan eder eta beste batzuetan beltz, bere mugetara eramaten du askatasuna, hura mugatzen duten beldurrak eta nahiak nola eraikitzen diren jakiteko.

Pablo Und Destruktion Iparraldetik etorritako dandiak berehalakoa baztertu egiten du bere letretan, eraldatzailea, sakona eta iraultzailea dena bilatzeko, heroi campbelliarra, eta herensugea hiltzeko, gaztelua ikusteko, dorre-
ra igotzeko eta desira objektuarekin bat egiteko fantasia berreskuratzen ditu, heretikoaren espiritua tiraniatik askatzeko modu bakar gisa hartuz. Oraingoan ere, Ikuskizunaren Gizartearen hipokresia zalantzan jartzen du artistak, mundu fedegabe baten azken balentriak aurkitu nahian, beren fedeari uko egingo ez dioten azken asaldatuak, mundu modernoaren errautsen gainean haziko diren erramu adarrak.

Pablo und Destruktion



05 ABU OR Garralda

20:00 / AROSTEGI PLAZA

KUL
TUR
2022

Gabezin Nafarroako eta Gipuzkoako musikariek osatutako berbena taldea da, eta Nafarroako eta Euskadiko herrietako eta auzoetako plazak girotzen aritu da hamalau urtez. Gaur egun zazpi kide ditu, eta hainbat musika tresna jotzen dituzte: baxua, gitarra, bateria, akordeoia, tronpeta, tronboia eta ahotsak.

Aurtengo udan *Korapiloak* diskoa aurkeztuko

dute, hainbat estilotako abestiz osatutako uzta: kalejira, balts edo fandangoz gain *reggae* edo *ska* erritmoak ere aurki ditzakegu. 2020an Goizuetako Euskaraldirako argitaratutako *Herri bat oihuka* abestiaren ondoren, hauxe da beren lehen lan luzea. Bi urteko geldialdiaren ondoren, gazte hauek gogor datoz jaiak girotzen jarraitzeko.



05 ABU OR Isaba / Izaba

20:30/ANFITEATROA

KUL
TUR
2022

Euskal Herriko Txistulari Elkarte metal boskote batek osatzen du, pianorekin, baxua-
rekin, perkusioarekin eta bateriarekin.

Ríos da Iruñeko Txistularien 63. Alarderako hautatu duten proposamena. Aurreko urteetan bezala, Aitor Urquiza izango da ekitaldiko musika zuzendaria.

Interpretatu beharreko errepertorioak obra berriak izango ditu, honako hauek sortuak: Joaquín Lecumberri, Iñigo Casalf, Juan Cazcarra, Anne Pérez de Azpeitia, Xabier Zabala, Urtzi Iraizoz, Teresa Catalán eta José Ramón García.

Bakarne Atxukarro da testuaren eta gidoiaren egilea, Nafarroako Eska, Urederra, Ebro, Bidasoa, Irati, Arakil, Ega eta Arga ibaietan inspiratuta.

Gure mapa bertikalean urratzen duten ibaiak, pasaeran historiaz betetako haranak sortuz.

Kultura ibaiadarretatik edaten duten ibaiak.

Mugak, sehaskak eta orbainak marrazten dituzten ibaiak.

Gure lurraren erraiak eta ertzak zulatzen dituzten ibaiak.

Euskal Herriko Txistulari Elkarte

IBAIK



11 ABU OG Corella

22:00/MARTXOAK 8 PLAZA


KUL
TUR
2022

Divertimento Folk 2001. urtean sortu zen. Taldeak hainbat herri eta kulturatako musika sustraiak etorkizunera begira jartzeko modu gisa ulertzen du bere musika proiektua. Musika tradizionala publiko guztiei hurbiltzea, hain ezezaguna eta gazteenek ahaztua batzuetan, estilo abangoardistak eta moldaketa propioak txertatuz. Taldeak erabiltzen dituen tresnak honako hauek dira: dultzaina, Gaztelako txili-

bituak, gitarra akustikoak eta elektrikoak, baxu elektrikoa, hainbat perkusio, bateria, zeharkako flauta, *whistle* irlandarra, zanfona eta gaita.

Sustraiko musika eta instrumentuak (dultzainak, gaitak, zanfona) xx. eta xxi. mendeetako hiri musika herrikoiaaren estilo garrantzitsuen bidez garatzen dira, hala nola rocka, *jazza* eta *swinga*, besteak beste.

Divertimento Folk



11 ABU OG Roncal / Erronkari

19:00/PLAZA

KUL
TUR
IRA

Ibil Bedi taldea bost lagunek osatzen dute, Irunberri, Erriberri, Zangoza eta Iruñekoak: gitarra, baxua, biolina, saxoa, bateria, teklatura eta ahotsak. 2019ko ekainean kaleratu zuten beren lehen diskoa, *Berandu baina garaiz*. Urte horren amaieran, abesti bikoitza argitaratu zuten, *Bide zuzena-Teilaturantz*, bideoklip batekin batera. 2021ean kaleratu zuten bigarren LPa, *Beltxarga Beltza*, konfinamendu garaian sortu eta grabatutako hamaika abesti biltzen dituen.

Eguneroko bizitzan aurki dezakegunaz hitz egiten digu **Ibil Bedi** taldeak: maitasunaz, zailantzez, galeraz... Hori guztia popa ardatz duen musikaz lagunduta.

Azken LParen ondoren, *Agerraldia* edo *Bost Teilatu* filma bezalako proiektuetan parte hartu dute, eta abestiak konposatu dituzte haietarako.

Beste talde batzuekin ere kolaboratu dute, Broken Brothers Brass Band eta J Martina, besteak beste.

Ibil Bedi

BELTXARGA BELTZA



12 ABU OR Lekunberri

20:00/HERRIKO PLAZA

KUL
TUR
2022

Tuterako dantza (dance) eta San Joan bataiatzailearen makil dantza (paloteado) ikuskizunean makil dantzak eta antzezpenak egiten dira, bertso eta guzti, eta hainbat pertsonaiak parte hartzen dute.

Ikuskizuna 1978an antzeztu zen lehen aldiz, eta 2022ko ekainean XLV. aldiz egin da. 1982az geroztik, musika eta dantza propioak ditu, eta interes lokaleko festa izendatu dute.

San Joan bataiatzaileari eskainitako ikuskizuna da, eta santuaren egunetik hurbilen dagoen as-teburuan egiten da, Tuterako Lourdes auzoko Perrintxe parkean. Bi egunetan egiten da: bezperako ostiralean, egun horretako dantzak eta erroskaren dohaintza egiten dira, eta larunbatean, makil dantza egiten da oholtzan. Ikuskizunean, makil dantzaz eta beste dantza batzuez gain, pastorada egiten da, Mayoral eta Rabadán artzain nagusien arteko elkarriketa. Pastoradak

Pirinioetan du jatorria, eta Zuberoako Pirinioez haraindiko pastoralaren antza du; iparralde-tik hegoaldera zabaldu izango zen, Pirinioetatik Ebrora, transhumantziaren bidez. Gainera, aingeruaren eta deabruaren arteko borroka antzezten da. Oinarrizko lau pertsonaia horiek Nafarroako Erriberako makil dantza guztietan ageri dira, baina Tuterako makil dantzan beste hiru pertsonaia ere ageri dira: alkatea, Pepa eta Tarambana. Horrela, denen arteko elkarriketa ikaragarri aberatsa da, eta testuak zortzi silabako erromantze moduan aurkezten dira.

Tuterako dantza edo makil dantza ezerezetik sortua da, eta horretan datza, hain zuzen, haren balioa; izan ere, birsorkuntza bat izan zen, eta ederki bete du Nafarroako Erriberako dantzak edo makil dantzak adierazpen folklorikoa gisa berpizteko funtzioa. Taldeak dantza sorta txiki bat eramango du Lekunberrira, egun horretarako bereziki prestatutako testuekin.

Paloteado de San Juan Bautista de Tudela



13 ABU LR Fitero

21:00/MALBEN PLAZA

KUL
TUR
2022

Pamplona Jazz Quartet taldea Pamplona Jazz elkartearen baitan sortu zen. Nafarroako jazz musikari ospetsuenetako lau elkartu dira oraingo honetan Pedro Iturralderi omenaldia egiteko, Espainiako jazz musikari onenetako bat. Donostiako *Jazzaldian*, Gasteizko *Jazzaldian* eta *Spring Lindy Weekend* bezalako jaialdietan parte hartu dute, besteak beste. Ramón Cardo,

Ilja Reijngoud, Ramón López eta Deborah Carter artistekin aritu dira halaber.

Kontzertu honetan, maisu faltzestarraren konposizio ospetsuenetako batzuez eta *Pedro Iturralde Quartet featuring Hampton Hawes* bezalako grabazio historikoetan saxofonista nafarra ospetsu egin zuten jazzaren estandarrez gozatu ahal izango da.

KIDEAK

Iñaki Rodríguez: saxoak eta flauta / **Ramón García:** pianoa / **Luisa Brito:** kontrabaxua / **Hilario Rodeiro:** bateria

Pamplona Jazz Quartet

HOMENAJE A PEDRO ITURRALDE



19 ABU OR Sangüesa / Zangoza

23:00 / ARKUTERIA PLAZA

KUL
TUR
2022


Tributo Aretha Franklin taldeak kontzertu guztiz interesgarria eskainiko du souleko erregina mitikoaren klasikoak errepasatuz, Noelia Álvarez-en ahots hunkigarriarekin.

Motown garaiko hainbat abesti eta musikari handiek bakarrik egin ditzaketen inprobisazioak ere interpretatuko dituzte.

KIDEAK

Noelia Álvarez: ahotsa / **Adolfo Fh:** gitarra / **Paco Dicenta:** baxua / **Adrián Blanco:** teklatuak / **David Outumuro:** bateria

Tributo Aretha Franklin



20 ABU LR Leireko Monasterioa

19:45/ABADIA ELIZA

KUL
TUR
2022

Martzillan jaioa, **Iosu Larumbek** Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan egin ziotuen organo ikasketak Raúl del Toro irakaslearekin. Era berean, Hizkuntzaren eta Musika Hezkuntzaren Pedagogiako titulua atera zuen ikastetxe berean. Bere prestakuntzan zehar trebatze ikastaroetara joan da, honako hauekin, besteak beste: Jacques Ogg, Els Biesemans, Fabio Ciofini, Benoît Mernier, Michel Bouvard, Géraud Guillemot eta Daniel Roth.

2000. urteaz geroztik, pianista eta organo jole laguntzaile gisa lan egiten du Atarrabiako San Andres Abesbatzarekin batera, eta, aldi berean, komunitateko hainbat abesbatza talderekin kolaboratzen du. Jarduera horiez gain, organo jole liturgikoaren lanak egiten ditu hainbat parrokian. Musikari laguntzaile edo bakarlari gisa errezitaldiak eskaini ditu Nafarroako hainbat herritan.

2005az geroztik, irakasle gisa dihardu hainbat musika eskolatan, eta, batez ere, piano eta musika hezkuntzako eskolak ematen ditu, beste irakasgai batzuez gain.

Parisen bizi zen **César Franck** organo jole eta konpositore belgikarraren jaiotzaren bigarren mendeurrena ospatuko da 2022an. Organorako mugimendu erromantikoaren aitzindari izan zen, tresna horrek musika eszenan zuen papera bigarren mailan geratu baitzen Frantziako Iraultzaren ondoren. Hala, berriro ere garrantzizko eta ospe handiko lekura itzuli zuen organoa, bere konposizioei eman zien hizkuntzari esker, eta ondorengoaren eskola bat sortu zuen, instrumentuari erreperitorio erromantiko-sinfoniko handia emanez. Dituen ezaugarriengatik, erreperitorio hori naturaltasunez bereganatuko du Leireko monasterioko organoak.

Emanaldia, funtsean, konpositore horri eta bere inguruari buruzkoa izango da, XIX. mendeko Parisen eta ondorengoengan utzi zuen ondarean oinarrituta.

Iosu Larumbe



26 ABU OR Arguedas

21:00/TINGLAO PLAZA

KUL
TUR
2022

Mugimendua, trakzioa, desplazamendua da **Move Quartet**. Kontzertu bakoitza, espazio-denboran bat egiten duten ideien fluxua, pertsona bakarrekoa gainditzeko eta, aldi berean, entzun ez ezik aditu ere egiten duen pertsonarekin bat izateko. Sinbiosi ezin hobean, Alberto Artetak, Borja Barruetak, Javier Callenek eta Iñigo Ruiz de Gordejuelak musika herrikoi garaikidearen abangoardiara astintzen dituzte beren hegoak, oinak jazzaren, klasikoaren eta folkloreaken tradizioan errotuta. Sustraiak eta hegoak, **Move Quartet** mugitzen ari den une bihurtzen dutenak, gure garairako diskurtsoa.

Bi kontzeptu zehatz iradokitzen ditu **Move Quarteten** abiapuntuko ideiak. Alde batetik, aurrerantz, abangoardiarantz bultzatzen duten musika materialei forma ematea, *jazzareki*-ko eta beste musikekiko grina alde batera utzi gabe. Horren harira, kuarteto honetako kideek eskusibotasunez interpretatu eta moldatutako kantuek osatzen dute errepertorioa. Bestetik, apaltasun osoz saiatzea entzulea sentsibilizatze-ko gai den zerbait sortzen eta, zehazki, pertsona bakarrekoa den hori gainditzeko nolabait ere.

Move Quartet

ARTETA, BARRUETA,
CALLÉN, RUIZ
DE GORDEJUELA



27 ABU LR Mendaza

19:30/FRONTOIA

KUL
TUR
2022

Pilgrim's *punkfolk* irlandarreko taldea da, esperientzia eta musika prestakuntza handia duten Iruñeko musikariek osatua.


Abesti itsaskor eta koroa egiteko errazekin, bai estetikagatik bai *showagatik* inor ez hotz eta ez bero uzten ez duen talde horietako bat da; beren alaitasuna kutsatzen dute eta dantza egitera bultzatzen dute alboan duzun pertsonari besotik helduta pitxerra garagardoa altxatuz.

Moncayo Music Fest lehiaketa irabazi zuten 2019an, eta taldeak Maldito Record disko etxearen

eskutik grabatu zuen estudioko bere lehen diskoa. *Old Kilkenney* kantuaren bideoa (2019) taldearen espiritu ausart eta alaiaren erreferentzia argia da, eta kritika on ugari jaso ditu.

Zuzenekoak, elkarrizketak eta kontzertuak *online* eginez... saihestu zituzten pandemiaren zailtasunak, eta orain, galdutako denbora berreskuratzea espero dute, taldekide berriekin eta musika tresna gehiagorekin. *Just One More!* oihukatuz, emanaldi osoan salto eta kanta dezagun lortuko du **Pilgrim's**-en soinu indartsu eta sendoak.

Pilgrim's



27 ABU LR Mendigorria

21:00/HERRIKO PLAZA

KUL
TUR
2022

Sal Paradisek **Monte del Oson** buelta ematea erabaki zuenean, Jack Kerouacen *On the road* bidaia zoroaren lehen saiakeran, ez zuen porrot gisa hartu, inflexio puntu gisa baizik, energia gehiagorekin berriro hasteko. Espiritu horrek eta The Minutemen, Hüsker Dü, Dinosaur Jr, The Replacements, Seaweed, Sonic Youth edo Sugar bezalako taldeek dutenak bultzatuta, Edu Ugartek (Half Foot Outside, Muy Fellini), Ion Mindek (Kaskezur, Tirita) eta Luis Gomezek elkartzea erabaki zuten 2014ko udan, berehalakotasunari eta biszeralitateari bidea egiteko eta hazten ikusteko. Lehen album hori egin zutenetik euri asko egin du, inolaz ere. Beste bi disko gehiago, *Badira hegaldian erlaxatzen diren euliak* eta *Arriskuan dagoen etxe* batetik salbatu beharreko gauzak, aurpegian irribarrea

marrazten dizuten kritikak jaso dituztenak. Horrez gain, hainbat bira partekatu dituzte The Possies, The Jesus and Mary Chain, Teenage Fanclub, Nada Surf edo Marky Ramone bezalako taldeekin. 2021 honek kantu bat Gorka Urbizurekin batera (Berri Txarrak) egitera eramán ditu. *Suzko Bola*, *power pop* kutsuko sinergia, non ehundurek bat egiten duten ahotsetan eta tresnetan, soinu berri izugarria sortzeko bientzako. Punkak, *power pop*ak eta *indie-rock* amerikarrak (80ko eta 90eko hamarkadetakoak), gitarra gordinek eta melodiekin, eta *hits* mordo batek osatzen dute *Esto debe doler*. Erabateko printzipio adierazpena diskoaren izenburutik eta albuma hasten duen abestitik. Horrekin lasai ohera daiteke *power* trio, baina ez dut uste oso geldi geratuko denik.

KIDEAK

Edu Ugarte: bateria / **Ion Minde:** gitarrak eta ahotsa / **Luis Gómez:** baxua

A photograph of the three members of the band Monte del Oso standing in front of a brick wall. The member on the left is wearing a long brown coat over a dark shirt. The member in the middle is wearing a denim jacket over a dark sweater with a yellow zigzag pattern. The member on the right is wearing a dark jacket over a dark shirt and glasses. The lighting is warm, with a strong orange glow on the left side of the image.

Monte del Oso



IRA



02 IRA OR Artaxoa

20:00/FORUEN PLAZA

KUL
TUR
2022

Iparfolk Iruñean finkatutako musika taldea da eta Nafarroako folklореaren soinuak zelta musikarekin nahasten ditu. Talde honen aniztasuna hain da zabala erritmoetan eta melo-

dietan, ezen folk-fusiotzat har baitaiteke bere musika. Taldearen espiritu alaiak talde dibertigarri egiten du **Iparfolk**, eta jendea erakartzen dute eta irribarre eginarazten diote.

KIDEAK

Alberto Blazkez: akordeoia-trikitia-ahotsa / **Eneko Páez:** biolina eta zanfona / **Eneko Lizoáin:** txistua-silbote-txirula-alboka-gaita nafarra eta gaita galiziarra / **Israel Carbonel:** gitarra elektrikoa eta koroak / **Rodrigo Frutuoso:** baxu elektrikoa eta koroak / **Mikel Bruja:** bateria

Iparfolk



02 IRA OR Tuteria

20:00 / ALFONTSO BORROKALARIA PLAZA

KUL
TUR
2022

The Fatty Farmers-ek ez du atseden hartze-ko edo aspertzeko denborarik uzten. Zero minututik energiaz eta jokamolde onez betetako giroa sortzen du taldeak. *Bordari* gazte horiek *punk, rock, country, balkan* eta musika irlandarraren dosi handien erritmoan egiten dute ez-tanda. Koktel horrek bakar bihurtzen ditu, eta estilo oso pertsonala sortzen du, katalogatzeko zaila kritika ortodoxoarentzat, baina ez du inor ez hotz eta ez bero uzten.

Europar ehun emanaldi baino gehiago egin ondoren, egiazko festa dira euren kontzertuak, eta ezinezkoa da parte hartu nahi ez izatea. Baina kontuz! Izan ere, haien erritmo neurrigabeei eusten badiezu, agian galdu egingo duzu beren letretako batzuek ezkututzen duten balioa eta mezu konprometitu eta errebindikatiboa aurkitzeko aukera.

The Fatty Farmers



03 IRA LR Leitza

23:30/HERRIKO PLAZA

KUL
TUR
2022

Skabidean *ska, reggae eta rocksteady* taldea da, eta Iruñean sortu zen 2012an. Hamar musikarik osatzen dute taldea, eta berrehun kontzertu baino gehiago eman ditu gure geografia

osoan zehar, atzerrira irtenaldi ugari egiteaz gain. 2022aren hasieran argitaratu zuten beren laugarren diskoa.

Skabidean



03 IRA LR Zugarramurdi

17:00/SORGINEN LEIZEA

KUL
TUR
2022

Leizean sartzeko prezioa: 5,50 € (helduek) / 3,50 € (12 urtetik beherakoek)

Iruñeko Nébula taberna txikiaren inguruan jaio zen **Melenas**, eta bere *erreverbcore*arekin herrialde honetako *garage pop* eszenan zeresan handiena eman duen taldeetako bat bihurtu zen berehala.

Bere debuteko albumak bi edizio amaitu zituen Espainian bakarrik, eta nazioartean berargitaratu dute *Trouble In Mind Records* disko etxearen bidez. Beren kantak, gitarraz eta reverb efektuz beteak, pop denboragabearen erakustaldia dira, estilo propio eta freskoarekin, baina, aldi berean, tradizio handiarekin: Oihanaren melodia ederrak, Leireren baxuaren ildo freskoak, Mariaren teklatu azidoak eta Lauraren Lindy Morrison erako bateriak *fuzzez* eta *phaser* kementsuez apaintzen dira, eta ahots harmonietan biltzen dira. *The Feelies*, *Stereo-lab* edo C86-ren soinu basatiena entzuten dira bihotz sentikorrentzako letrak dituzten abesti horietan.

Iaialdi nazionalen eszenatoki garrantzitsuenetan ibili ondoren, hala nola *Primavera Sound*, *FIB*, *LOW* edo *BBK*; bai eta nazioartekoetan ere, esate baterako Austingo SXSW (bi aldiz, ia 20 show), *Eurosonic* Groningenen, *Freakender* (Glasgow) eta beste batzuk Erresuma Batuan eta Frantzian, **Melenas** taldeak estudioko bere bigarren albuma argitaratu du aurten, *Días Raros*, *Elsa/Snap! Klap!* eta *Trouble In Mind* etxe estatubatuarrak (Mikal Cronin, Jacco Gardner) batera argitaratu dutena.

2021ean Europako *MME Award* saria irabazi zuten, aldezturik Rosaliak, Hindsek edo Dua Lipak irabazi zutena.

Melenas



04 IRA IGA Ujué / Uxue

20:00/DOÑA LEONOR PLAZA

KUL
TUR
2022

Timbakada taldea Tuterakoa da, eta hamasei urte daramatza lehian. Urte horietan, inoiz ez diote jotzeari utzi. Musikarekiko duten grinak eta proiektu honetako kideen artean gozatzeak, horrexek mugiarazten ditu.

Azken hiru diskoetako abestiak errepasatuko dituzte ordu eta erdiz: *Cierzo*, *La línea del tiempo* eta *Que se calle el silencio*. Errepertorio honetan rock, folk, rumba, *reggae* edo *ska* bezalako estiloak ditugu. Errespetutik betiere, gizatasunarekin eta gizarte-bidegabekeriekin inplikaturako letrak nabarmentzen dira.



Timbakada



09 IRA OR Altsasu / Alsasua

20:00/FORUEN PLAZA

KUL
TUR
2022

Jarabe de Palori omenaldia egiten dion taldea da **Jarabe de Pau**. Eskaintzen duen musika emanaldian, egoki eta maitasun osoz gogora ekartzen ditu **Pau Donesen** kanta hoberenak, haren hasieretatik, *La Flaca* abestiarekin izan zuen arrakasta eta azken diskoa ere *Eso que tú me das*, bai eta oso abesti ezagunak ere, esate baterako *Agua*, *Bonito*, *El lado oscuro*, *Depende*, *Dos días en la vida*, *De vuelta y vuelta*, *Pura Sangre*, *Perro apaleao*...


Pau Donesen abestiak milioika pertsonaren bizitzaren zati izan dira bi hamarkada baino ge-

hiagotan, Espainiako musikaren artista garrantzitsuenetako bat izan baita.

Jarabe de Paloren musika kultura eta musika generoen arragoa izan zen, musika latinoaren ezaugarriekin (batez ere kubatarra -son, chachachá, salsa, bolero...- eta brasildarra -samba, bossa nova...-) eta, jakina, poparena eta rockarena.

Jarabe de Pau luxuzko taldea da, eskarmentu profesional eta akademiko handikoa eta pasio eta errespetu handikoa.

Jarabe de Pau



09 IRA OR Etxarri Aranatz

20:30/PLAZA

KUL
TUR
2022

Gure sustraiak abiapuntutzat hartuta, **Kuttune** taldeak konposizio ibilbide berri bat eskaintzen du, non melodia eta erritmo tradizionalak ikus daitezkeen, hala nola jotak, arin-arinak edo rumbak, Afrikako ipar-mendebaldeko erritmo bereizgarrienetara eramanez, baita Ekialde Hurbileko sonoritate ezberdinetara edo Latinoamerikako Karibeko erritmoetara ere, besteak beste. Euskal musikaren eta inguruko beste kultura batzuetakoen sustraiak ezagutuko ditugu, urrunagoko soinu oihartzunekin.

Nerea Quincoces perkusio jotzaile eta kantaria zuzendari dela, tradizio askotako musikariak daude taldeko hamar kideen artean: euskal

tradiziokoak, tradizio iberiar, afrikar eta mediterranearrekoak, Asia Erdialdeko eta Kubako musika tradiziokoak, bai eta jazzeko eta musika klasiko eta modernoko musikariak ere.

Proiektuaren musika ikerketa hainbat iturritan oinarritzen da, hala nola lurraldeko hainbat gizarte erakunde eta musikologoren artxiboetan eta grabazioetan: *Soinuenea Fundazioa*, *Joaquín Díaz Fundazioa*, *Alan Lomax-en Artxiboa*...

Kuttune taldeak eskaintzen duen musika ikuskizunak ez du inor ez hotz eta ez bero uzten, eta entzuteko, dantzatzeko, gure sustraiak arakatzeko eta beste leku batzuetara bidaiatzeko esperientzia da, inolaz ere.

Kuttune



10 IRA LR Abárzuza / Abartzuza

20:00/FORUEN PLAZA

KUL
TUR
IRA

Fito Cabrales rock musikari handiari omenaldia egingo diote kontzertu honetan, eta *pertsonaia* horren historiaosatzen duten gai garrantzitsu guztiak errepasatuko ditu **Willson&Willsonetisek** taldeak.

Platero eta Tú abestiarekin hasi eta *Fito & Fiti-paldis* abestiarekin buka, ugari izan dira rocka-

ren zaleen hainbat belaunaldiren himno bihurtu direnak. **Willson&Willsonetis** taldeak, mirespen eta errespetu osoz, omenaldia egin diote egiazko *rock&rolleko* gau batez gozatzeko.

Willson& Willsonetis

TRIBUTO A FITO



11 IRA IGA Martzilla

19:00/GAZTELUKO PATIOA

KUL
TUR
2022

Bi irlandarrek, ingeles batek eta amerikar batek (Garrett Wall, Dave Mooney, Howard Brown eta Robbie K Jones) osatzen dute taldea, eta 2011n sortu zen Madrilen, musika akustikoaren marka paregabearekin dar-dar eginarazteko, **Track Dogs** taldea dugu. New Yorkeko metroko mantentze lanetako taldeetatik dator izen artistiko hori.

Track Dogs 4X4 ahaltsua da, eta folk, latindar, musika amerikar, *bluegrass* eta pop estiloak bateratzen dituzten ahotsak eta tresnak, musika estilo berri bat inauguratuz: benetako **Track Dogs** estiloa.

Track Dogs taldeak zuzenean aurkeztuko du bere azken albuma, *Where to Know?* Aukera paregabea, inolaz ere, Nazioartean ezaguna den eta Erresuma Batuko jaialdi onenetan ohikoa den talde on horrekin gozatzeko.

Track Dogs



KUL
TUR
2022

TURISMO JARDUERAK



25 EKA LR

Uriz (Artzibar)

URITZEKO DORREKO LANDA HOTELEKO ETA HERRIKO BISITA GIDATUA

Uritzeko Dorrea Landa Hoteleko terrazan.
18:30

Ordu bat / 10 € / Gutxieneko parte-
hartzaileak: 2

IZEN-EMATEA

hotelruraltorredeuriz@gmail.com

T. 948 415 220 edo 621 280 704

2 UZT LR

Pueyo / Puiu

VALDORBAKO MENDIEN KBE.AREN BEGIRATOKIRA ETA PUEYOKO ELIZARA BISITA GIDATUA

Pueyo-ko Santiago gaina,
ermitako atearen aurrean. 18:30
45 minutu / 3 €

IZEN-EMATEA

asociacion@valdorba.org

T. 626 153 809

16 UZT LR

Buñuel

SANTA ANA ELIZARA BISITA LIBREA

Santa Ana eliza. 19:00
Ordu bat / Doan

16 UZT LR

Orreaga / Roncesvalles

ORREAGAKO ERREGE KOLEGIATA BISITATZEA PISTA-JOKO BATEN BIDEZ

Bisita leihatila. 11:00
50 minutu / 4,2 € (sarrera murriztua bisitari
guztiei aplikatzen zaie)

IZEN-EMATEA

visitas@roncesvalles.es

T. 670 289 997 (whatsapp hobe)



23 UZT LR

Ochagavía / Otsagabia

OTSAGABIA / OCHAGAVÍA-RA BISITA GIDATUA

Ochagavía / Otsagabia-Ko

Turismo Bulegoa. 17:00

90 minutu inguruan / 1 €

Gutxieneko parte-hartzaileak: 10

IZEN-EMATEA

oit.ochagavía@navarra.es

T. 948 890 641

31 UZT IGA

Donamaria

LEZEALDE, LUR BARRUKO ALT XORRA ESPELEO JARDUERA

Beintza-Labaien. 10:00

3 ordu / 20 € helduak;

14 € gazteak (8 eta 17 urte bitartekoak)

Gutxieneko parte-hartzaileak:

4 (geihenez 15 lagun)

IZEN-EMATEA

info@orbela-beintza.com

T. 659 477 396

31 UZT IGA

Los Arcos

ESCAPE WAY

Turismo bulegoa

Ordubete inguruan / Doan

(izenematea ez da beharrezkoa)

IZEN-EMATEA

cultura@losarcos.es

T. 948 640 021

31 UZT IGA

Los Arcos

SANTA MARÍA ELIZARA BISITA


Santa María eliza. 17:00 etatik 19:00-etara

Ordubete inguruan / Doan

IZEN-EMATEA

cultura@losarcos.es

T. 948 640 021



13 ABU LR

Fiteroko Bainuetxea

ONGIZATE ZIRKUITUA+LIBRE SARBIDEA KANPOKO IGERILEKU HIDROTERMALETARA (BAZKALTZEKO AUKERA ERE)

Gustavo Adolfo Bécquer hotela
34,40 € / Bazkaltzeko aukerarekin: 47,20 €
Geihenez 10 lagun

IZEN-EMATEA

48 ordu lehenago hitzartu:
repcion@balneariodefitero.es
T. 948 776 100

20 ABU LR

Leireko Monasterioa

ERRESUMAKO ZUTABEAK BISITA GIDATUA

Harrera zentroan bildu /
Bisita gidatua: 17:30
Bezperak: 19:00
KULTUR kontzertua: 19:45
Ordubete inguruan / 5 € /
Ez dago baina geihenez 35

Txartelak erreserbatu webguneko
on line leihatilan
monasteriodeleyre.com
eta sarrerek bisitarien harrera
zentroan bildu.

IZEN-EMATEA

visitas@monasteriodeleyre.com
T. 948 884 150

27 ABU LR

Mendaza. Acedo

LA FICHA 145 DE NÚREMBERG NOBELAREN IBILBIDE LITERARIOA, VASCO NAVARRO TRENBIDEAREN BIDE BERDETIK

Acedoko garbitokia. 17:00
2 ordu / 5 € (adingabekoak doan) /
Gutxieneko parte-hartzaileak: 15

IZEN-EMATEA

kepamenendez@hotmail.com
T. 689 785 546

27 ABU LR

Mendigorria

BISITA ETA DASTAKETA LA CASA DE LÚCULO UPELTEGIETAN

Upeltegaren sarrera. 18:30
Ordu bat / 10 € lagun bakoitza
(bisita eta 2 ardo barne)
Gutxieneko parte-hartzaileak: 10

IZEN-EMATEA

bodega@luculo.es
T. 606 697 598



3 IRA LR

Leitza

PERU HARRI, HARRIAREN MUSEORA BISITA GIDATUA

Gorritenea-Peru Harri baserria. 11:30

2 ordu / 3 € haurrak / 5 € helduak

IZEN-EMATEA

peruharri@hotmail.com

T. 659 701 045

3 IRA LR

Zugarramurdi

ZUGARRAMURDIKO MUSEO ETA LEZEETARA BISITA

Museo eta lezea. 10:30 etatik 19:00 etara

Ordubete inguruan baliabide bakoitzean /

5,50 € helduak / 3,50 € haurrak (6-12 años)

1 €-ko deskontua bigarren baliabidearen

sarreran

Hobe *online* erreserba:

[https://www.reservaonline.support/
turismozugarramurdi/index.html](https://www.reservaonline.support/turismozugarramurdi/index.html)

info@zugarramurdi.es

IIZEN-EMATEA

T. 948 599 004 / 948 599 305

10 IRA LR

Abárzuza / Abartzuza

PATXARAN AZANZAKO ARTISAU FABRIKARA BISITA GIDATUA PATXARAN BARIETATE DASTAKETAREKIN

Patxaran Azanzako fabrika. 17:00

Ordu bat / 4 €

IZEN-EMATEA

licoresazanza@llanosmail.com

T. 948 520 040



KUL
TUR
2022



ERAKUSKETA



10 años de Arte Nuevo
— Señorío de Bertiz

01/07 —
31/08

Mikel Belascoain



Lilura
Poemas
Mágicos





Bertizeko Natura Parkearen
Lorategi Historiko-Artistikoa
Uztailaren 1etik abuztuaren 31ra



LILURA - POEMAS MÁGICOS

LORATEGI BOTANIKOA

10:30-14:00 eta 16:00-19:30

ERAKUSKETA ARETOA

10:30-13:30 eta 16:00-19:00

PROIEKZIOA: LUNA NEGRA

Egunero 17:30etik 18:00etara

BISITA GIDATUAK ABUZTUAN

4 OSTEGUNA. 17:30

25 OSTEGUNA. 17:30

Holly Mirandaren emanaldia, Un Bosque eskulturen musikaren konpositorea.



LILURA - POEMAS MÁGICOS


Arte Berriko Fabrika Mikel Belascoain artista nafarraren sorkuntza laborategia da. 2022. urtean, 10 urteko jarduera ibilbidea eginda, Bertizko Jaurrerian hamabost erakusketa puntu instalatuko dira, eta haietan kolorea, poesia bisuala eta magia izango dira gidari, Bertizeko natura eta espazioekin bat eginez.

Lilurak bere baitan biltzen dituen harridura, ilusioa eta xarma sortu nahi dira. Erakusketa proiektu honek hamarkada honetan bidelagun

izan duten energia laburtu nahi du; eta energia hori opari gisa agertuko zaie uda honetan Bertiz bisitatzen duten pertsoneri.

Erakusketan pintura, eskultura, musika, argazkiak eta zinema izango dira aukeran, lorategietan, erakusketa aretoan eta Bertizko proiektzio aretoan banatuta.

FÁBRICA
ARTE
NUEVO



ERAKUSKETA GUNEAK

KULTUR
2022

LORATEGIAK INSTALAZIOAK

Poema bisualak

Soinu eskulturak

Pieza koloretsuak



ERAKUSKETA ARETOA: ARTE BERRIKO 10 URTE

Arte Nuevo

Poemak

Persona 2017



PROIEKZIOEN ARETOA: ZINEMA SORKUNTZA

Luna Negra 2022



Horren guztiaren
parte zara zu ere;
sartu, ezagutu,
ikasi eta gozatu

#kulturnavarra2022



#Recarga Cultura
#Kultura Birkargatu

